

**KONTINGENTZIA-PLANA. I. I. HEZITZAILE ESKOLA /
ESCUELA DE EDUCADORES Y EDUCADORAS**

2020_2021 IKASTAROA

SARRERA

2020-2021 ikasturtearen garapena "Covid-19"-aren pandemiaren bilakaerak baldintzatuko duela oinarritzat hartuta, gure ikastetxeak, Hezitzaile Eskolak, kontingentzia-plan hau egiten du, ahal den neurrian, egokitu beharreko eszenatokiak aurreikusteko, gerta daitezkeen osasun-egoeren arabera.

Kontingentzia-plan hori Hezkuntza Sailak prestatutako eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak gainbegiratutako hezkuntza jarduera bertaratuan garatzeko prebentzio eta antolaketa protokoloan oinarrituta dago.

Saileko buruek eta zikloko koordinatzaileek zuzendaritza-taldearekin elkarlanean jarduten dute Gertakari Plana diseinatzen eta ondoren ezartzen.

Kontingentzia-planaren oinarrian dagoen premisa, helburu nagusia, langileen eta ikasleen segurtasuna eta osasuna bermatzeko beharra da, gerta daitezkeen errealitateei erantzuteko behar den egokitzapen-gaitasuna izanik.

ARDATZ NAGUSIAK

- Kutsaketak saihestea.
- Gure zentroan gerta daitezkeen kasuak garaiz detektatzea eta isolatzea.
- Hezkuntza-komunitate osoak osasunaren prebentzio, garbiketa eta sustapen-neurriak barneratzeko eta aplikatzeko ezagutza sustatzea.
- Irakaskuntza bertaratua lehenestea.
- Ikasle ahulenen arreta lehenestea.

OINARRIZKO PREBENTZIO-IRIZPIDEAK

- Maskara nahitaez erabili beharra dago hezkuntza-komunitate osoa ikastetxean dagoen bitartean.
- Eskuak maiz garbitzea, eta beti ikastetxean, gelan eta espazioetan sartu aurretik.
- Ikasgela aldian behin aireztatzea. Beti ikasleak iritsi aurretik, klase edo irakasgaien artean, jolasaldian eta lanaldia amaitzean. Osasun-agintarien arabera, aireztapena garbiketa bezain garrantzitsua da, batez ere pertsonak etengabe egoten diren lekuetan.
- Korridoretako, eskaileretako, komunetako eta gune amankomunetako oinarrizko urrutze- eta higiene-printzipioa uneoro errespetatzea. Ikasleak eraikinetik ahalik eta gutxien mugitzea. Irakasleak joango dira



- Ikasgela aldiro aireztatzea. Beti ikasleak iritsi aurretik, irakasgaien artean, jolasaldian eta lanaldia amaitzean. Osasun-agintarien arabera, aireztapena garbiketa bezain garrantzitsua da, batez ere etengabeko gizabanako presentziak dauden lekuetan.
- Korridoreetako, eskaileretako, komunetako eta gune komunetako oinarrizko urrutze- eta higiene-printzipioa uneoro errespetatzea.
- Ikasleak eraikinetik ahalik eta gutxien mugitzea. Irakasleak joango edo hurbilduko dira.
- Irakasleen mugikortasuna egon daiteke sektoreen artean, ezarritako higie-neurriak errespetatuz, baina sektore desberdinetako ikasleen arteko mugikortasuna eta interakzioa saihestuko da (eskolan hiru sektore daude, solairu bakoitzean bat) Ikastetxeko sarrera eta irteera guztiak irakasleek kontrolatu behar dituzte.
- Sarreretan eta irteeretan laguntzeaz arduratzen diren irakasleek maskara eramango dute, ikasleek maskara daramatela eta eskuen higie-neurriak betetzen dituztela ziurtatuko dute, bai eta sektore bakoitzerako adierazitako sarbideak erabiltzen dituztela ere.
- Ikasleek ahalik eta gutxien ukituko dituzte elementu komunak (heldulekuak, leihoak, eskudelak...). Ateak eta leihoak ireki eta itxiko dituenak, irakaslea izango da eta ikasleei araua gogoraziko diena ere.
- Ikasgeletako eta bulegoetako ateak irekita egoteko ahalegina egingo da. Ezinezkoa bada, irekitzen edo ixten dituen pertsonak garbitasun-arauak errespetatuko ditu.

UNEAN UNEKO OSASUN-ERREALITATEAREN ARABERAKO EGOERAK

1. egoera: egoera horretan, ikasle guztien aurrez aurreko (presentzialtasuna) arreta bermatzen da eskolan, eskola-egun guztietan, garbitasun-neurriari eta planifikatutako espazioak eta pertsona-fluxuak antolatzeari jarraikiz.

2. egoera: eutsi egiten zaie 1. egoerarako ezarritako antolaketa-neurriari, ratioak doitu eta ikasleen arteko distantzia doitu, bai eta ikasle-talde bakoitzak erabilitako espazioen estankotasuna ere.

- Irakasleen eta ikasleen ordutegia aldatu ahal izango da, ikasleak gutxienez prestakuntza-ordutegiaren % 50a bertaratzen direla bermatzeko.
- Zeharkako prestakuntza-elementuak (LPO-“FOL”, enpresa, hizkuntzak...) eta gainerako lanbide-moduluen eduki teorikoenak, ahal dela, teleprestakuntzako modalitatean emango dira.



- Ikasleek partekatutako espazioen erabilera bertan behera utziko dira.
- Jarduera osagarri eta eskolaz kanpoko jarduera guztiak etengo dira.

3. egoera: zentroak ez ixtearen ordezeko neurria, sektoreak guztiak erabat blokeatzeari ekin

- Aurrez aurreko eta online irakaskuntza txandakatzea, osasun-agintarien jarraibideei jarraituz.
- Sektore bakoitzaren blokeoa, langilego jakin batez (enplegatuak eta ikasleak) eta espazio jakin batzuek osaturik. Ezin dira pertsonak sektore batetik bestera elkar trukatu, ezta espazio partekatuak erabili ere.
- Irakaskuntzarako eta ikasleentzako txandak ezartzeko beharra.
- Irakasleek egoera horretara egokituko dute lanaldia, eta lehentasuna emango diote ikasleen arretari beste edozein jardueraren aurretik.
- Behar duten ikasle guztiei ekipo informatikoak emateko sarbidea bermatzea.

4. egoera: zentroak erabat ixtea

- Irakaskuntza pertsonala erabat etetea, Lantokiko Prestakuntzari ere (erderaz FCT) hedatuz.
- Hezkuntza Sailak ikaskuntza-ingurune birtualen baliabide tekniko eta teknologikoak ezartzeko konpromisoa hartzen du, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua, ikasleen parte-hartzea, jarraipena, ebaluazioa eta irakasleen lana errazteko eta bermatzeko.

PLANGINTZA AKADEMIKOA

IKASTURTEAREN HASIERA

Hasteko, ikasleei beren gelara lagunduko diegu, eta espazioen antolaketa eta pertsonen fluxuak azalduko ditugu, bai eta jarraitu beharreko higiene-neurriak ere (alderdi horiek jasotzen dituen liburuxka bat emango zaie ikasle guztiei).

Harrera

- Ikasleei entzutea eta bizipenak partekatzea aurreko ikasturtean bizi izan dugun eta oraindik ere bizi dugun denbora berezi honetan.
- Jarduera-protokoloen eta prebentzioko, garbitasun eta osasunaren sustapeneko neurrien aurretiko ezagutzak bateratzea.



- Prebentzio- eta higiene-neurriak ulertzea eta betetzea sustatzen duten infografiak eta kartelak egitea.
- Beren sektoreko (solairu) ageriko lekuetan jartzea.

Zero proiektua

Eskolako arlo akademikoaren funtzionamenduari eta kudeaketari buruzko informazioa eta praktika (bereziki, eskolan erabiltzen diren tresna telematikoak “moodle, drive, meet ...” erraz ulertzen eta erabiltzen jakitea).

1. proiektua

Ziklo guztietan proiektu bat egingo da, modulu artekoa, jada diseinatua, aurreko ikasturte berezian prestakuntza laburtu eta integratzeko; bigarren mailako taldeentzat laburpen gisa, eta lehenengo mailako ikasle berrientzat, aukeratu duten prestakuntzarekin harremanetan jartzeko.

IKASTAROAREN GAINERAKOA

Ikasturtearen, metodologiaren eta jardueren plangintza malgutasunez egingo da; osasun-agintariek zehaztuko duten une oroko informazio epidemiologikoari egokitzuz, beharrezkoa izanez gero.

- Ikastetxean 2019-2020 ikasturteko esperientzia dugu. Esperientzia horretan, inguruabarrak gorabehera, ikasleen prestakuntza ez zen eten, eta bat-batean online bihurtu zen.
- Eskolak metodologia aktiboak erabiltzen ditu, ikasleak banaka eta talde txikietan lan egiteko gai izan daitezten, irakasleen laguntzarekin, bai presentzialtasunez, bai online, beharrezkoa izanez gero.
- 2020ko ekainean, ziklo guztietako irakasle-talde guztiak ikasturte berriaren hasiera eta hainbat proiektu planifikatzen aritu dira. Proiektu horiei esker, ikasleek hainbat gaitasun pertsonal, profesional eta sozial eta lanbide-modulu desberdinen ikaskuntza-emaitzak modu integratuan landu ahal izango dituzte.
- Proiektu horietako lana, hainbat modulu biltzen dituen, aurrez aurre (presentzialki) egingo da hasiera batean baina, malgutasun handikoak izanik egoera epidemiologiko desberdinetara egokitze beharra izango balitz.
- Programazio didaktikoak eta ebaluazio-sistemak gerta daitezkeen egoera desberdinetara egokituko dira. Beharrezkoa da ikasleen gaitasunak, konpetentzien arabera ikaskuntzaren premisaren arabera garatzea.



- Programazioetan jasotako jarduera osagarri eta eskolaz kanpoko guztien garapena programatuta dauden uneko osasun-errealitatearen menpe egongo da.

PANDEMIARA EGOKITUTAKO ESKOLA-ANTOLAKETA

IKASTURTE HASIERA: Irakasleak

Ikasturtearen hasieran, behar den denbora guztian, lehenengo irakasleek eta, sartzen direnean, ikasleek ondo baino hobeto ezagutuko dituzte bai pertsonen espazio eta fluxuen antolaketa, bai pandemiari eusteko eta eskola-komunitate osoaren osasuna ziurtatzeko behar diren higiene-neurriak.

“Covid-19” batzorde bat izendatu da, LPO saileko irakasleek (FOL) eta bi irakasleen laguntzaz osatua. Kontingentzia-plan honen jarraipena egiteaz eta osasun-agintariek eta Hezkuntza Sailak egoera epidemiologikoaren arabera ezartzen dituzten neurriak aplikatzeaz, arduratuko dira.

Ikasleak bertaratu aurretik, eskolako langile guztiek irakaskuntza-asistentziala eta presentziala hasi ondoren hartuko diren neurrien berri izan beharko dute.

Gai hau ikasleei harrera egin aurreko ikasturte-hasierako klaustroan landuko da.

Zikloko koordinatzaileak eta sailtako buruak abuztuaren azken astean itzuliko dira eskolara, eskolako Kontingentzia Plana aurkeztu eta ezagutzeko.

Ikasturtearen hasieran, irakasleak itzultzerakoan, Ziklo koordinatzaileak ziklo guztietako irakasle guztiek plana ondo ezagutzeaz arduratuko dira, ikasleei helarazi ahal izateko.

Kontingentzia-plana ezartzeaz eta bertan jasotako neurrien jarraipena egiteaz, ikastetxeko irakasle guztiak arduratzen dira. Beraz, garrantzi berezia du eskolako irakasle-talde osoak Planean jasotako jardura-protokoloak eta prebentzio-, higiene, garbitasun- eta osasun-sustapeneko neurriak ezagutzea eta ulertzea, hezkuntza-komunitate osoak uler ditzan.

IRAKASLEENTZAKO PREBENTZIO-NEURRIAK

Ikastetxeko irakasleek uneoro jarraituko dituzte eskola-komunitate osorako ezarritako prebentzio-neurriak, ikastetxeko joan-etorriari, maskara erabiltzeari, higiene-neurriari eta abarri dagokienez.

Irakasleak arduratuko dira ikasleek plan honetan ezarritako prebentzio-neurriak ezagutzeaz, partekatzeaz eta errespetatzeaz.



Zehazki, espazio partekatuetarako:

- Espazio partekatuetan, saiatu beti leku bera hartzen. Irakasle bakoitza bere espazioa desinfektatzeaz arduratzen da, erabili aurretik eta ondoren ere.
- Espazio partekatu guztiak maiz aireztatzea.
- Osasun-agintarien arabera, aireztapena garbiketa bezain garrantzitsua da, batez ere pertsonak etengabe egoten diren lekuetan.
- Materiala partekatzea saihestu.
- Ez eseri aurrez aurre segurtasun-distantzia mantendu gabe.
- Material/altzari partekatuen kasuan (ordenagailuak, saguak, aginteak → “proiektore mandoak e.a.”, ...), desinfektatu erabilera bakoitzaren aurretik eta ondoren (ikasgelan ere aplikatu daiteke, irakasle bakoitzak erabiltzen duen materialean)
- Denbora luzez espazio berean hainbat pertsonaren presentzia mailakatzen saiatzea (saila)
- Presentzia hori beharrezkoa denean (zikloko bilerak), espazio zabalagoa, desinfektatua eta aireztatua bilatuko da.

Irakasleekin partekatutako espazio guztiek, garbitasun eta desinfekzio neurriak aplikatzeko materiala izango dute.

Pertsona bakoitzak bere lanpostua baldintza osasungarrietan mantentzeaz arduratu behar du.

IKASLEENTZAKO PREBENTZIO-NEURRIAK

Ikastetxeko ikasleek uneoro jarraituko dituzte eskola-komunitate osorako ezarritako prebentzio-neurriak, ikastetxeko joan-etorriari, maskara erabiltzeari, higiene-neurriari eta abarri dagokienez. Neurri horiek kasuan kasuko irakasleek gainbegiratu dituzte.

Ikastetxeko sarrera- eta irteera-puntuak dibertsifikatu ditu, eta taldekako sarrera-antolamendua ezarri du, ikasgelarekiko hurbiltasuna lehenetsiz eta norabide bakarreko joan-etorriak erraztuz.

Arestian adierazi bezala, ikasturteko lehen egunetan, ikasle guztiek Planean jasotako jarduera-protokoloak eta prebentzio, garbitasun eta osasun-sustapeneko neurriak ezagutu eta ulertu beharko dituzte.



Haien inplikazioa eskatuko da kartelak eta infografiak egiteko, planean inplikaturata senti daitezen, eta beren sektoreko (solairu) ageriko espazioetan jarriko dira.

Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da, bai ikasgelan (segurtasun-distantziari eutsi ezin zaio lekuetan soilik ez), bai ikastetxean mogitzen den aldi guztietan (sarrerak, irteerak, beste espazio batzuetara joatea ...).

IKASLEEN SARRERA ETA IRTEERA

- Ikastetxeko sarrera eta irteera guztietarako emandako argibideak jarraituko dituzte. Lehen eskola-egunean, ikasleei azalduko zaizkie sartzeko eta irteteko ordutegiak eta dagozkien sarrera- eta irteera-zirkuituak, dagokien berariazko gela zer sektoretan dagoen.
- Zirkulazioaren noranzkoaren seinaleei jarraituko diete ikastetxeko joan-etorrietan.
- Ikasgelara sartu aurretik, eskuak garbituko dira. Zentroko espazio guztietarako sarbide guztietan, gela-hidroalkoholikoa dago.
- Atea irekita egongo da, ahal den neurrian ikasleek eskulekuak ikutu ez ditzaten. Leihoak irekitzeko ardura irakasleak izango du, hosteko esku-desinfektaketa eginik.

IKASGELEN KUDEAKETA

Ikasleek gela hidroalkoholikoa dute espazio bakoitzaren sarreran, gela bakoitzean sartu aurretik eskuak garbitzeko.

- Talde bakoitzak gela espezifiko bat izango du eraikineko joan-etorriak ahalik eta gehien mugatzeko.
- Ikasle bakoitzak leku berezi bat erabiliko du, beti berbera, ikasgelan.
- Taldeko tutoreak plano/argazki bat egingo du, eta, bertan, ikasle bakoitzaren ikasgelako berariazko lanpostua agertuko da.
- Talde bateko ikasleek beren erreferentzia-gela beste talde bateko edo batzuetako ikasleekin partekatzea saihestu egingo da.
- Beste espazio bat erabiltzen bada, hura erabili ondoren garbitu eta desinfektatu egin beharko da, beste erabilera bat egin aurretik.
- Maskara nahitaez erabili beharko da.



- Ikasgela aldian-aldian aireztatuko da. Aginduzko moduan, ikasleak iritsi aurretik, eskola bakoitzaren amaieran, jolasaldian eta lanaldia amaieran.
- Gelako mugimendua eta irakaslea ikasleengana hurbiltzea mugatuko dira.
- Ez da material pedagogikorik edo inolako materialik partekatuko. Ikasle bakoitzak berea erabiliko du, eta desinfektatzeko ardura izango du.
- Ikasleek beste pertsona batek erabilitako ekipamendua edo altzariak erabili behar badituzte, beren lekua hartu aurretik, altzari horiek garbituko dituzte garbiketa-produktu egoki eta paper erabili eta botatzekoarekin (gela guztietan egongo da eskuragarri).
- Egunero, gelako altzariak desinfektatzeko ardura duten ikasleak egongo dira (desinfekzioa+aireztapena jolas guztietan).
- Irakasleak arduratuko dira gainerako irakasleekin komunean erabiltzen den ikasgelako materiala garbitzeaz, irakastaldi bakoitza amaitzerakoan.

- Ikasgeletara edo hainbat espaziotara sartzeko ateak, irakasleek ireki beharko dituzte ikasgela-espaziora sartu eta bertatik irten aurretik, eskuak garbitu ondoren.
- Irakasleek ez dituzte leihoak ireki edo itxi behar.
- Irakasleek ahalik eta gutxien ikutuko dituzte elementu komunak (heldulekuak, eskudelak). Irakasle laguntzaileek gogorazi beharko die.

IKASLEEN DESPLAZAMENDUA IKASTETXEAN ZE HAR

NEURRI OROKORRAK

Barne-antolaketarako, eskola 3 sektoretan banatuta egongo da, solairu bakoitzeko sektore 1.

Ikasleek, eskolako sarrera, irteera guztiak, atsedenaldia barne, adierazitako sarbideetatik egingo dituzte, segurtasun-distantzia gordez eta betiere maskara jarrita.

SEKTOREA	SOLAIRUA	TALDEAK	SARRERAK IRTEERAK
SEKTOREA 1	1 SOLAIRUA 5 GELA	2.go talde guztiak	Lorategiko atea eta galerietako arrapala. Galeriatik sartzen dira ikasgelara
SEKTOREA 2	2. SOLAIRUA 4 GELA (Areto nagusia ikasgela bihurtu da)	<ul style="list-style-type: none"> • 6. GELA: 1º HHG • 7. GELA: 1º HHE • 8. GELA: 1º ISC • Areto nagusia: 2º APSD 	<p>Jardineko atetik. Sute-eskaileratik sartzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 6, 7, 8 gela galerian sartu eta ateratzen dira • 2. APSD sute-ateetik sartu eta irteten da eta geziei jarraitzen die.
SEKTOREA 3	3. SOLAIRUA 3 GELA	<ul style="list-style-type: none"> • 9. GELA: 1º ASCT • 10. GELA: 1º APSD • Multimedia GELA: 1ºISE 	Kale nagusiko atea

Irakasleek ikuskatu behar dituzte ikastetxeko sarbide eta irteera guztiak, bai eta ikasleen edozein mugikortasun ere.

- Ikastetxeko sarreretan eta irteeretan eta gainerako joan-etorrietan laguntzeaz arduratzen diren irakasleek maskara eramango dute, ikasleek maskara daramatela eta ikasgelan sartu aurretik eskuetako higiene-neurriak betetzen dituztela ziurtatuko dute, bai eta sektore bakoitzerako adierazitako sarbideak erabiltzen dituztela ere.
- Komeni da ahalik eta gehien saihestea irakasleek eta ikasleek ikastetxetik egin beharreko joan-etorriak
- Ikasleak sektore batetik bestera mugitzea saihestu behar da
- Irakasleen mugikortasuna egon daiteke sektoreen artean, ezarritako higiene-neurriak errespetatuz, baina ikasleen mugikortasuna sektoreen arteko interakzioa saihestu egingo da.

Ikasleak ikastetxetik ahalik eta gutxien mogitzera ahaleginduko da.

Ahal dela, irakasleak mugituko dira.

IRAKASLE EZ DIREN LANGILEENTZAKO PREBENTZIO-NEURRIAK

Irakasle ez diren langileek Eskolako Kontingentzia Planean agertzen diren prebentzio-neurriak beteko dituzte uneoro.

Irakasle ez diren langile guztiek konfinamendua amaitzen denetik dihardute lanean, eta beharrezko informazioa eta babesteko beharrezko neurriak dituzte.

- Barrera-neurriak.
- Esleitu zaizkien lan-eremuetako babes-neurriak.
- Ohiko garbiketa eta desinfekzioa, eguneko 3 garbiketa, paperontziak tapa eta pedalarekin hustuta.

KOMUNEN KUDEAKETA

IRIZPIDE OROKORRAK

- Distantzia fisikoa mantentzea.
- Ikasleen arteko elkarreragin fisikoak mugatzea.
- Garbitasuna ziurtatzea.

Komunen barruko pertsona-kopurua mugatuko da, segurtasun-distantzia bermatzeko.

Sektore bakoitzari erabili behar dituen komunen berri emango zaio, betiere bere sektorearen barruan eta bere berariazko gelatik ahalik eta gertuen izanik.

Konketak eta pixatokiak hurbil daudenean, ondokoak itxi egingo dira, hurbiltasuna saihesteko.

Bainugelak maiz aireztatu eta higienizatu egingo dira.

Ikasleek komuna erabili aurretik eta ondoren eskuak garbitzeko betebeharra errespetatu behar dute.

Ikasleek komunetarantz joateko duten fluxua kudeatuko da, pertsona-kopurua mugatu ahal izateko (klase arteko ikasgela aireztatzeko 5 minutu emango direnez une horiek erabil ditzake ez jolas orduan soilik, ikasleak ez dira batera joan behar).



Zentrokoak soilik diren pertsonak erabili ahal izango dituzte komunak. Beharrezkoa izanez gero, ikastetxeko langileek eta/edo ikasleek erabiltzen ez dituzten komunak erabiliko dituzte.

PROTOKOLOA COVID KASU BATEN AURREAN

Ez dira ikastetxera joango COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten irakasleak, ikasleak eta/edo bestelako profesionalak, ez eta COVID 19 diagnostikoaren bidez isolatuta daudenak edo etxean berrogeialdian daudenak ere, sintomak dituen edo COVID-19 diagnostikoa duen pertsonaren batekin harreman estua izateagatik.

Eskola-komunitateko edozein pertsonak (irakasleek, ikasleek, irakasle ez diren langileek) COVID-19ren sintomaren bat badu, honako hau bete beharko da:

IKASLEAK

- Maskara kirurgiko bat emango zaio ikasleari, eta beste bat helduari.
- Banakako erabilerarako gela batera eramango da, aldez aurretik aukeratua, aireztapen egokiarekin eta maskara botatzeko zorroa duen pedalezko paperontzi batekin, erabili eta botatzeko zapiekin.
- Familiari jakinaraziko zaio bere osasun-zentroarekin edo Nafarroako Foru Komunitateko erreferentziako telefonoarekin **948290290** harremanetan jarri behar duela, bere kasua ebalua dezan.

HELDUAK

- Sintomen hasiera dituzten helduak, irakasleak eta irakasle ez diren langileak, ikasleen antzeko ezaugarriak duten gela eta ekipamendua gune bereizi batera joango dira, eta maskara kirurgiko bat jarriko zaie.
- Osasun-zentroarekin edo Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin **848423769/28** edo Nafarroako Foru Komunitateko erreferentziako telefonoarekin **948290290** harremanetan jarriko dira, eta haien jarraibideei jarraituko diete.

GARBIKETAREN KUDEAKETA

Eskolako garbiketaz eta desinfekzioaz arduratzen diren langileek badituzte jarraitu beharreko jarraibide guztiak, konfinamendua amaitu zenetik baitaramate eskolan lanean.

Normalean arratsaldean egiten zituzten zereginak, eskola-eguna amaitzean, ikasturte honetan pertsona bat egongo da goiz osoan, eskola-orduetan.



Eskolako komunak maiz aireztatu eta higienizatuko dira eskola-egunean zehar, eta erabilera komuneko espazioak aireztatu eta desinfektatuko dira, talde berri bat sartu aurretik.